

IZENA: \_\_\_\_\_ MAILA: \_\_\_\_\_ DATA: \_\_\_\_\_ ZENB: \_\_\_\_\_

## HITZ ELKARTUAK

### Lotu hitz elkartuak eta definizioak.

- zeresan • • Zerbait egiteko ados jarri.
- hitzeman • • Beste zerbaitekiko lotura edo erlazioa.
- zerikusi • • Sikatu ondoren osorik edo hezurrik gabe kontserbatzen den mahats alea.
- hitzartu • • Harrapatu. Norbait preso hartu edo aurretik doanarengana heldu.
- atzeman • • Jendartean hedatzen den zurrumurrua edo ahoz aho dabilen txutxu-mutxua.
- mahaspasa • • Zerbait egingo dela agindu, promes egin.

### Bete hutsuneak goiko hitzekin.

- Gabonetan \_\_\_\_\_ pila bat jaten dugu gure etxean.
- Herri hartan azkar hedatzen ziren \_\_\_\_\_ eta txutxu-mutxuak.
- Kostata, baina lehoiak zebra \_\_\_\_\_ du azkenean.
- Liburutegia berriztuko dutela \_\_\_\_\_ dute ikastetxeko irakasleek.
- Horrek ez du gaurko gaiarekin \_\_\_\_\_.
- \_\_\_\_\_ dugu eskolara garaiz helduko garela.

Osatu testua.

## SALBAMENDUA

Pirinio aldean paseoan genbiltzala, estropezu egin eta hori erorikoa! 112 telefonora deitu eta helikopteroz eraman ninduten ospitalera. Bizkarraldea \_\_\_\_\_ ondoren, zera esan zidan medikuak: \_\_\_\_\_ txiki bat baino ez zela. Horrenbeste \_\_\_\_\_ kolpe txiki batengatik! \_\_\_\_\_ egin nintzen hura entzutean!

